



Gizon konkortua

ARTHUR CONAN DOYLE

itzulpena:

Maren Duñabeitia Uribe, Xabier Gamboa Eguia, Ander Leal Negro



BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

booktegi.eus

ARTHUR DONAN KOYLE

Gizon konkortua

Itzulpena:

Maren Duñabeitia Uribe

Xabier Gamboa Eguia

Ander Leal Negro

Udako gau batean, ezkondu eta hilabete gutxira, nire sutondoaren ondoan eserita nengoen, azken pipa bat erretzen eta burua makurtuta eleberri baten gainean, nire eguna lanean nekagarria izan baitzen. Nire emaztea jada eskaileretatik gora joan zen, eta lehenago, atondoko atearen itxierak jakinarazi zidan zerbitzariak ere erretiratu egin zirela. Nire eserlekutik altxatu eta, piparen errautsa husten nuen bitartean, bat-batean txirrinen soinua entzun nuen.

Erlojuari begiratu nion. Hamabiak laurden gutxi ziren. Hain ordu berantiarrean zen ezin zitekeela bisitaria izan. Paziente bat, argi eta garbi, eta agian gau osoa esnaturik eman zuen. Bekokia ilunduta, atondora irten eta atea ireki nuen. Nire harridurarako, Sherlock Holmes zen nire atarian zegoena.

— Ene, Watson, —esan zuen,— garaiz iristea espero nuen zu harrapatzeko.

— Ene adiskide maitea, mesedez, sartu.

— Txundituta dirudizu, eta ez da harritzekoa! Lasai, ere, esango nuke nik! Aha! Orduan, oraindik ere erretzen duzu zure ezkongabe-garaietako Arcadia nahasketa hura! Zure jakan dagoen errauts hori nahasezina da. Erraza da jakitea uniformeak janztara ohituta zaudela, Watson. Ez zara inoiz arraza garbiko herritartzat pasatuko, eskuzapia zure mahukan gordetzeko ohiturari eusten diozun bitartean. Gaur gauean zure etxean har nazakezu?

— Atsegin handiz.

— Esan zenidan ezkongabeentzako banakako gelak zenituela, eta ikusten dut une honetan ez duzula gizonezko bisitaririk. Horrela adierazten du zure esekitokiak.

— Poz-pozik egongo naiz hemen gelditzen bazara.

— Mila esker. Orduan, hutsik dagoen logela beteko dut. Sentitzen dut etxean langile britainiarra izan duzula ikustea. Gaizkiaren seinale da. Hustubidea ez, espero dut.

— Ez, gasa.

— Ene!

— A! Bere botaren azazkalen bi marka utzi ditu linolioan, argiak ematen dion lekuan. — Ez, eskerrik asko. Waterloo zerbait afaldu nuen, baina gustura erreko dut pipa zurekin.

Nire tabako-ontzia pasatu nion, eta bera nire aurrean jesarri eta isilean erretzen egon zen pixka batean. Oso ondo nekien kontu garrantzitsu batek bakarrik ekar zezakeela nire etxera halako orduan, beraz, patxadaz itxaron nuen berak hari heltzea erabaki arte.

— Ikusten dut orain profesionalki nahiko lanpetuta zaudela, —esan zuen, begirada zorrotza botatzen zidala.

— Bai, egun lanpetua izan dut, —erantzun nuen.— Oso ergela irudi dezake zure begietan, —gehitu nuen,— baina benetan ez dakit nola ondorioztatu duzun.

Holmesek barre egin zuen bere kolkorako.

— Zure ohiturak ezagutzeko abantaila dut, ene Watson maitea, —esan zuen.— Zure lanaldia laburra denean, oinez joaten zara, eta luzea denean, kabrioleta erabiltzen duzu. Zure botak, nahiz eta erabilia egon, zikinak ez daudela sumatzen dudanez, ezin dut zalantzan jarri azkenaldian zure lanak kabrioleta hartzera bultzatu zaituela.

— Bikain! —oihukatu nuen.

— Oinarrizkoa, —esan zuen.— Arrazoitzaileak bere bizilagunari aparteko efektua eragin diezaiokeen kasu horietako bat da, horrek kenkariaren oinarria den puntu txiki bat alde batera utzi duelako. Gauza bera esan daiteke, adiskide maitea, zure zirriborro txiki horietako batzuen eraginaz, zeina meretrizioa baita erabat; izan ere, arazoaren faktore batzuk zure eskuetan edukitzearen mende zaude, irakurleari inoiz jakinarazten ez zaizkionak. Orain, ordea, irakurle berorien egoeran nago, gizon baten burmuinak inoiz zur eta lur utzi duen kasurik bitxienetako baten zenbait hari baititut eskuan, eta, hala ere, nire teoria osatzeko beharrezkoak diren bat edo bi falta zaizkit. Baina izango ditut, Watson, izango ditut.



Begiak piztu zitzaizkion eta gorritasun txiki bat agertu zitzaion masail meheetan. Une batez beloa altxatu egin zen bere izaera sutsu eta biziaren gainetik, baina une batez bakarrik. Berriro begiratu nionean, bere aurpegiak indiar-azal gorrien itxura berreskuratu zuen, hainbatek gizona baino gehiago makinatzat hartzea eragin zuena.

— Arazoak interesgarriak diren ezaugarriak ditu, —esan zuen.— Interes ezohiko ezaugarriak ere esan dezaket. Gaia dagoeneko aztertu dut, eta, uste dudanez, nire irtenbidearen ikusmiran nago. Azken urratsa ematen lagunduko bazenit, mesede handia egingo zenidake.

— Atsegin handiz egingo dut.

— Aldershot-eraino joan zaitezke bihar?

- Ez dut inolako zalantzarik Jackson ordezkatzeko nindukeela.
- Primeran. 11.10etan irten nahi dut Waterlootik.
- Horrek denbora emango lidake.
- Orduan, oso loguratuta ez bazaude, gertatu denaren eta egin beharrekoaren eskema bat egingo dizut. — Loguratuta nengoen zu etorri baino lehen. Orain oso esna nago.
- Istorioa ahalik eta gehien laburbilduko dut, kasurako funtsezkoa izan daitekeen. Ezer alde batera utzi gabe. Pentsatzekoa da horri buruzko aipamenen bat ere irakurri duzula. Royal Munsters-eko Barclay Koronelaren ustezko hilketa da, Aldershoten, ikertzen ari naizena.
- Ez dut ezer entzun horri buruz.
- Oraindik ez du arreta handirik piztu, tokikoa izan ezik. Gertaerak duela bi egunekoak dira. Laburbilduz, honako hauek dira:
 - Royal Munsters, dakizun bezala, Britania Handiko armadako irlandar erregimenturik ospetsuenetako bat da. Krimean eta Matxinadan egitasmo handiak egin zituen, eta harrezkero, aukera posible guztietan nabarmendu da. Astelehen gauerarte James Barclayren agindupean zegoen, beterano ausarta bat. Soldadu soil gisa hasi zena. Matxada garaian, bere ausardiagatik, mailaz igo zuten, eta hala, garai batean mosketea eraman zuen erregimentu bera agintzera heldu zen.
 - Barclay Koronela sarjentu izan zen garaian ezkondu zen. Bere emaztea, izena Nancy Devoy zuena, erregimentu bereko sarjentu ohi baten alaba zen. Beraz, pentsa daitekeen bezala, tirabira sozial txikiak egon ziren bikote gazteak (oraindik gazteak baitziren) bere ingurune berrian aurkitu zituztenean haien buruak. Hala ere, badirudi azkar moldatu zirela, eta, entzun dudanez, Barclay andrea beti izan da bere anaia ofizialen artean senarra bezain ezaguna erregimentuko damen artean. Gaineratu behar dut edertasun handiko emakumea zela, eta orain ere, hogeita hamar urte baino gehiago ezkondu daramanean, erregina baten itxura deigarri eta duina izaten jarraitzen duela.
 - Barclay Koronelaren familia-bizitza orekatua eta zorientzua izan zela dirudi. Datu gehienak Murphy Maiorrari zor dizkiot. Haren arabera, bikotekideen artean ez zen inoiz gaizki-ulertzerik izan. Oro har, Barclayk emaztea gehiago maite zuen emazteak bera baino. Barclayri ezinegon handia sortzen zion egun bakar batez ere emaztearengandik urrun egoteak. Emakumea arduratsua eta leiala zen, baina ez hain amultsua. Dena den, erregimentuan bikote eredugarria zirela uste zuten. Elkarren arteko harremanetan ez zegoen ezer jendea geroago gertatzeko zen tragediarako prestatuko zuenik.
 - Badirudi Barclay Koronelak ezaugarri bereziak aurkezten zituela bere izaeran. Bere ohiko jarreran, soldadu zahar adeitsu eta alaia zen, baina, batzuetan bortizki eta mendekari jokatzeko gai zela ematen zuen. Hala ere, badirudi bere izaeraren alde hori ez zela inoiz bere emaztearen aurka bihurtu. Badago beste gertaera bat Murphy Maiorra eta haiekin hitz egin nuen beste bost ofizialeetatik hiru harritu zituen: Barclayk batzuetan jasaten zuen depresio mota berezia. Maiorrak adierazi zuen bezala, irribarrea sarritan ezabatzen zitzaion ahotik, mahaiko alaitasunarekin bat egiten zuenean. Zenbait egunez jarraian, umore horrek bereganatzen zuenean, tristurarik sakonenean hondoratzen zen. Hori eta nolabaiteko superstizio ñabardura bat ziren haren anai ofizialek beren izaerari buruz sumatu zituzten ezohiko ezaugarri bakarrak. Azken berezitasun hori bakarrik gelditzeari buruzko higuin bihurtu zen, batez ere iluntzearen ondoren. Haur-ezaugarri horrek, nabarmenki gizonezko izaera batean, iruzkinei eta susmoei bide ematen zien sarritan.
 - Royal Munstersen lehen batailoia (antzinako 117garrena) Aldershoten egon da aparkatuta urte batzuetan. Ofizial ezkonduak kuarteletik kanpo bizi dira, eta Koronelak Lachine izeneko etxe bat okupatu izan du denbora guzti honetan, iparraldeko kanpalekutik milia erdira. Etxea bere lurretan dago, baina bere mendebalde ez dago errepide nagusitik hogeita hamar yarda baino urrunago. Gurdizain batek eta bi neskamek zerbitzuko langileak osatzen dituzte.

Horiek, ugazabekin batera, Lachin-eko okupatzaile bakarrak ziren, Barclaytarrek ez baitzuten seme-alabarik, eta ez zen ohikoa bisitari egoiliarrik izatea.

— Goazen orain Lachinen gertatutakoarekin joan den astelehen gaueko bederatziak eta hamarrek bitartean.

— Barclay andrea, antza, Eliza Katoliko Erromatarreko kidea zen, eta interes handia zuen San Jurgiren Gremioaren ezarpenean, zeina Watt Streeteko kaperarekin bat egiteko prestatu baitzen, behartsuei arropa erabilia emateko asmoz. Arratsalde hartan, zortzietan, Gremioaren bilera bat izan zen, eta Barclay andreak presaka afaldu zuen bertan egon ahal izateko. Etxetik irtetean, gurdizainak senarrari komentario arrunt bat egiten entzun zion, bai eta laster itzuliko zela ziurtatu ziola ere.

— Gero, Morrison andereñoari deitu zion, ondoko herrian bizi den neska gazte bati, eta biak elkarrekin joan ziren bilerara. Berrogei minutu iraun zuen, eta bederatziak eta laurdenetan Barclay andrea etxera itzuli zen, Morrison andereñoa atean utzita hortik pasatzean.

— Lachinen goizeko gela gisa erabiltzen den gela bat dago. Horrek kalera ematen du, eta zelaira ematen duen kristalezko ate tolesgarri handi baten bidez irekitzen da. Zelaia hogeita hamar yarda zabalekoa da, eta errepidetik, burdinazko baranda duen horma baxu batek bakarrik bereizten du. Gela horretan sartu zen Barclay andrea itzuli zenean. Pertsianak ez zeuden jaitsita, gela oso gutxitan erabiltzen baitzen gauez, baina Barclay andreak berak piztu zuen lanpara, eta gero txirrina jo zuen, Jane Stewarti, neskameari, te-katilu bat ekar zezan eskatzeko, bere ohituren guztiz kontrakoa zena. Koronela jangelan eserita zegoen, baina emaztea itzuli zela entzutean, berarekin elkartu zen goizeko gelan. Gurdizainak ikusi zuen atondoa zeharkatzen eta bertan sartzen. Inork ez zuen berriro ikusi bizirik.

— Eskatutako tea hamar minuturen buruan zerbitzatu zuten, baina neskamea, atera hurbiltzean, harritu egin zen ugazaben ahotsak eztabaida bizian entzutean. Atea jo zuen erantzunik jaso gabe, eta eskulekua ere biratu zuen, baina atea barrutik giltzaz itxita zegoela konturatzeko besterik ez. Jakina, neskamea korrika joan zen sukaldariari kontatzera, eta bi emakumeak, gurdizainarekin batera, egongelara igo ziren. Oraindik jarraitzen zuen liskarra entzun zuten. Guztiak ados zeuden bi ahots baino ez zirela entzuten: Barclayrena eta bere emaztearena. Barclayren iruzkinak ahulak eta latzak ziren, horregatik entzuleentzat ez ziren entzungarriak. Emaztearenak, bestalde, oso saminak ziren, eta ahotsa altxatzen zuenean argi entzuten ziren. ‘Koldarra!’ behin eta berriz errepikatu zuen. ‘Zer egin daiteke orain? Zer egin daiteke orain? Itzuli nire bizitza. Ez dut inoiz aire bera arnastuko zurekin! Koldarra! Koldarra!’ Horiek izan ziren bere elkarriketaren zatiak, gizonaren tupusteko garrasi izugarri batekin amaitu zena, danbada batekin, eta emakumearen oihu lazgarri batekin. Tragedia bat gertatu zela sinetsita, gurdizaina aterantz oldartu eta bortxatzen saiatu zen, barrutik oihuak irteten ziren bitartean. Hala ere, ezin izan zuen barrura sartu, eta neskameak beldurragatik larrituegi zeuden berari laguntzeko. Alabaina, bat-bateko pentsamendu batek eraso egin zion: lasterka joan zen atondoko atetik barrena, eta leiho frantses luzeak irekitzen ziren zelaira irten zen. Leihoaren alde bat irekita zegoen, udan nahiko ohikoa zena, eta erraz sartu zen gelara. Andreak jada garrasi egiteari utzi zion eta diban baten gainean etzanda zegoen, konorterik gabe; oster, oinak besaulki baten saihetsean inklinatuta eta burua lurrean. Su-ontziko izkinatik gertu, soldadu dohakabea zegoen, bere odolaren putzu batean hilik.

— Jakina, gurdizainaren lehen pentsamendua atea irekitzea izan zen, ugazabaren alde ezer egiterik ez zuela ikusita. Baina hemen ustekabeko zailtasun berezi bat agertu zen. Giltza ez zegoen atearen barrualdean, eta gelan ere ezin izan zuen aurkitu. Beraz, berriro leihotik atera eta, polizia eta mediku baten laguntza lortu ondoren, itzuli egin zen. Andrea, zeinaren gainean susmorik larrienak agertu baitziren, bere gelara eraman zuten, oraindik soraiotasun egoeran zegoela. Ondoren, Koronelaren gorpua sofaren gainean jarri eta tragediaren lekuaren azterketa zuhur bat burutu zen.

— Badirudi beterano zorigabeak zeukan zauria bi hazbeteko luzera zuen ebaki koskadun bat zela, buruaren atzealdean; antza, arma kamuts baten kolpe bortitzak eragindakoa. Arma hura zein ote zen asmatzea ere ez zen zaila. Lurrean, gorputik hurbil, egur gogorreko garrote bitxi bat zegoen, hezur-kirtenez landua. Koronelak gudukatu

zuen herrialde desberdinetatik ekarritako arma-bilduma zabala zuen. Poliziak susmatzen du bere trofeoen artean bere garrotea zegoela. Zerbitzariak ukatu egiten dute lehenago ikusi izana, baina etxeko bitxikeria ugarien artean gerta zitekeen inork ez erreparatzea. Poliziak ez zuen ezer gehiago garrantzitsurik aurkitu gelan, salbu eta Barclay andrearengan, biktimarenean edo logelako beste inon ez zela aurkitu falta zen giltza. Azkenean, Aldershoteko sarrailagile batek ireki behar izan zuen atea.



— Hori zen egoera, Watson, astearte goizean, Murphy Maiorrak hala eskatuta, Aldershotera jaitsi nintzenean poliziaren ahaleginak osatzeko. Uste dut onartuko duzula arazoa jadanik interesgarria zela, baina nire behaketek laster ohartarazi zidaten lehen begiratuan ematen zuena baino askoz ere apartekoagoa zela.

— Gela aztertu aurretik, zerbitzariak galdekatu nituen, baina jada adierazi ditudan egitekoak ateratzea lortu nuen soilik. Beste xehetasun interesgarri bat Jane Stewart neskameak ekarri zuen gogora. Gogoratuko duzu borrokaren soinua entzutean behera jaitsi eta beste zerbitzariekin itzuli zela. Lehen aldi hartan, bakarrik zegoenean, bere ugazaben ahotsak hain baxuak omen ziren ezin baitzuen ia ezer entzun, eta haien tonuengatik, hitzengatik baino gehiago, ondorioztatu zuen liskartu egin zirela. Nire ekitean, alabaina, gogoratu zuen andreak bi aldiz ahoskatu zuela David hitza. Koska hori oso garrantzitsua da ustekabeko liskarraren arrazoirantz gidatzeko. Koronelaren izena, gogoratuko duzunez, James zen.

— Kasuan bazegoen zerbait zerbitzariari eta poliziarari inpresiorik handiena sortu ziena. Horixe zen Koronelaren aurpegiaren bihurtzea. Haien kontakizunaren arabera, giza aurpegiak har dezakeen beldur eta izuaren adierazpenik ikaragarriena hartu zuen. Pertsona bat baino gehiagok konortea galdu zuten hura ikustean, hain izugarria izan zen

inpresioa. Ziur aski bere patua aurreikusi zuen, eta horrek ikararik handiena eragin zion. Hori, jakina, bat zetorren poliziaren teoriarekin: Koronelak bere emaztea ikusi ahal izango zukeen haren aurka erasotzen, hura hiltzeko asmoz. Zauria buruaren atzealdean egotea ere ez zen horren objektzioa izan, kolpea saihesteko biratu zitekeelako. Ezin izan zen andrearen partetik informaziorik jaso, behin-behineko delirioan baitzegoen, garuneko sukarrak eragindako atake akutu baten ondorioz.

— Poliziagatik jakin nuen Morrison andereñoak, gogoratuko duzunez gau hartan Barclay andrearekin irten zena, ukatu egin zuela jakitea bere laguna itzuli zeneko umore txarra zerk eragin zuen.

— Datu horiek bildu ondoren, Watson, pipa batzuk erre nituen haien gainean, erabakigarriak zirenak, bigarren mailakoak zirenetik bereizten saiatuz. Zalantzarik gabe, kasuko koskarik bereizgarriena eta iradokitzaileena ateko giltzaren desagerpena zen. Bilaketa zuhur batekin ere ezin izan zen gelan aurkitu. Hortaz, handik hartu behar izan zuten. Baina ez Koronelak eta ez bere emazteak ezin izan zuten hartu. Hori argi eta garbi zegoen. Beraz, hirugarren pertsona bat sartu behar izan zen gelara. Eta hirugarren pertsona hori leihotik bakarrik sar zitekeen. Iruditu zitzaidan gela eta zelaia azterketa zuhur batek banako misteriotsu honen arrasto batzuk erakuts zitzakeela. Ezagutzen dituzu nire metodoak, Watson. Ez zen haietako bat bera ere ikerketari aplikatu ez niona. Eta azkenean, aztarnak aurkitu ziren, baina nik espero nituenen oso bestelakoak. Gelan gizon bat egon zen, eta zelaia gurutzatu zuen errepidetik etorruta. Haren oinatzen bost inpresio oso argi lortu nituen: bat bidean bertan, horma baxua igo nuen lekuan, bi zelaian eta bi oso ahulak sartu ziren leiho ondoko ohol tindatuetan. Antza, zelaitik korrika igaro zen, oinen arrastoak orpoenak baino askoz sakonagoak baitziren. Baina ez zen gizona harritu ninduen. Haren kidea baizik.



— Haren kidea!

Holmesek zetazko paper-orri handi bat atera zuen poltsikotik eta belaun gainean tolestu zuen kontu handiz. — Zer deritzozu horri? — galdetu zuen.

Papera animalia txikiren baten oinatzen kalkoek estaltzen zuten. Ongi markatutako bost kuxin zituen, azazkal luzeen aztarna, eta oinatz osoa ia postreko koilara bat bezain handia izan zitekeen.

— Txakurra da, — esan nuen.

— Entzun al duzu inoiz gortina batetik igotzen den txakurrik? Arrasto argiak aurkitu nituen izaki honek hori egin zuela esateko.

— Tximinoa, orduan?

— Baina ez da tximino baten oinatza.

— Zer izan daiteke, orduan?

— Ez txakurrik, ez katurik, ez tximinorik, ez ezagutzen dugun izakirik. Neurrietatik abiatuta berreraikitzen saiatu naiz. Jarraian, piztia geldirik dagoen lau oinatz ageri dira. Ikusten duzu ez daudela hamabost hazbete baino gutxiago aurrealdetik atzealderaino. Horri lepoaren eta buruaren luzera gehitzen badiogu, bi oin baino gutxiago ez duen izaki bat lortuko dugu—seguruenik gehiago buztana baldin badu. Baina orain, beste neurri honi erreparatu. Animalia mugitzen egon da, eta bere urratsaren luzera dugu. Kasu bakoitzean, hiru hazbeteko ingurukoa da bakarrik. Ikusten duzu, gorputz luze baten aztarna duzu, hanka oso motzekin berari lotuta. Ez da adina adeitsua izan ile bakar bat ere atzean uzteko. Baina bere forma orokorra nik adierazitakoa izan behar du, eta gortina bat igo dezake, eta haragijalea da.

— Nola ondorioztatzen duzu hori?

— Gortinatik igo zelako. Leihoan kanario-kaiola bat zegoen zintzilik, eta bere helburua txoria harrapatzea izan omen zen.

— Orduan, zer zen piztia?

— Ai, izen bat eman ahal banio, asko lagunduko luke kasua konpontzen.

Oro har, erbinude eta erbinude zurien tribuko izakiren bat izango zen—eta, hala ere, inoiz ikusi dudana beste edozein baino handiagoa.

— Baina horrek zer zerikusi izan zuen krimenarekin?

— Hori, halaber, oraindik ulergaitza da. Baina gauza horretaz askoz jabetu gara, ikusten duzun moduan. Badakigu gizon bat kalean zegoela Barclaytarren arteko borrokari begira—pertsianak altxatuta zeuden eta gela argizatuta. Badakigu, gainera, zelaian zehar korrika joan zela, gelan sartu zela, animalia bitxi baten laguntzarekin. Koronelari kolpea eman ziola edo, ahal den moduan, Koronela beldurrez erori zela hura ikustean, eta burua su-ontziko izkinarekin moztu zuela. Azkenik, badakigu arrotzak berekin eramane zuela giltza alde egitean.

— Badirudi zure aurkikuntzek lehen baino ilunago utzi dutela arazoa, — esan nuen.

— Bai, hala da. Zalantzarik gabe frogatu zuten arazoa hasieran uste baino askoz sakonagoa zela. Gaiari buruz gogoeta egin, eta kasuari beste alde batetik heldu beharko niola ondorioztatu nuen. Baina, benetan, Watson, esna mantentzen ari natzaizu eta bihar Aldershotera bidean kontatu ahal nizuke hau guztia.

—Mila esker, urrunegi joan zara orain gelditzeko.

— Nahiko ziurra da Barclay andrea zazpi eta erdietan etxetik irten zenean, senarrarekin harreman onean zegoela. Inoiz ez zen izan, esan dudana bezala, nabarmenki maitekorra, baina guardizainak Koronelarekin modu atseginean hitz egiten entzun zuen. Hala ere, neurri berean egia zen, itzuli eta berehala, senarra ikusteko aukera gutxien zuen gelara joan zen. Emakume asalatu batek egingo lukeen bezala korrika joan zela tea hartzera. Azkenean, bera etxera sartu zenean, aurpegiratze bortitzetan lehertu zen. Hortaz, zazpi eta erdiak eta bederatziak bitartean zerbait gertatu zen; harenganako sentimenduak erabat aldarazi zizkiona. Baina Morrison andrea berarekin egon zen ordu eta erdi hartan. Erabat ziurra zen, beraz, berak ukatu arren, zerbait jakin behar zuen gaiaz.

— Nire lehen susmoa izan zen. Agian pasarte batzuk izan zirela emakume gazte horren eta soldadu zaharraren artean, lehenbizikoak orain bere emazteari aitortu zizkionak. Horrek azalduko luke zergatik itzuli zen haserre, eta neskak zerbait gertatu zela ukatu izana. Era berean, ez litzateke guztiz bateraezina izango entzundako hitz gehienekin. Baina Daviden aipamena zegoen, eta Koronelak emaztearenganako zuen maitasun ezaguna ere bai. Hari aurre egiteko, eta zer esaterik ez dago beste gizon horren intrusio tragikoaz. Zeinak, jakina, aurretik gertatutakotik

erabat aldenduta egon baitzitekeen. Ez zen erraza nire pausoei jarraitzea, baina, oro har, Koronelaren eta Morrison andereñoaren artean zerbait egon zelako ideia baztertu nuen. Nahiz eta inoiz baino konbentzituago nengoen emakume gazteak bazuela gakoa Barclay andrea bere senarra gorrotatzera zerk bultzatu zuen jakiteko. Beraz, M. andereñoari deitzeko ageriko bidea hartu nuen, eta azaldu nion erabat ziur nengoela berak bazituela egitateak bere esku. Ziurtatu nion Barclay andrea akusatuen aulkian egon zitekeela heriotza-zigorreko kargu batengatik, baldin eta auzia argitzen ez bazen.

— Morrison andereñoa neska txiki eta etereo da, begi lotsatiak eta ile horiduna dituen, baina ez nion inondik ere maltzurkeria eta zentzu faltarik aurkitu. Une batez pentsatzen egon zen, nik hitz egin ondoren, eta gero, kementsu eta erabakitasunez niregana jiratzuz, zure onerako laburbilduko dudan aparteko aitortza bati ekin zion.

— ‘Lagunari hitz eman nion ez nuela ezer esango, eta promesa bat promesa bat da,’ esan zuen; ‘baina benetan lagundu ahal badiot halako salaketa larria egozten zaionean, eta bere ahoa, koitadua, gaixotasunagatik itxita dagoenean, orduan uste dut nire promesatik absolbituta nagoela. Astelehen gauean zehazki zer gertatu zen kontatuko dizut.



— ‘Watt Streeteko Misiotik itzultzen ari ginen bederatzia laurden gutxi aldera. Gure bidean Hudson Streetetik igaro behar izan genuen, oso kale lasaia baita. Kale-argi bakarra zegoen ezkerraldean, eta kale-argira hurbiltzen ari ginela, gizon bat ikusi nuen gugana zetorrela, bizkarra oso konkorturik eta sorbalda gainean zintzilik zeraman kutxa baten antzeko zerbaitekin. Deformatuta zirudien, burua makurtuta eta belaunak tolestuta ibiltzen baitzen. Haren ondotik pasatzen ari ginela, aurpegia altxatu zuen kale-argiak jaurtitako argi-zirkuluan begiratzeko, eta, hori egitean, gelditu

eta ahots beldurgarri batez oihu egin zuen: “Ene Jainkoa, Nancy da!”. Barclay andrea heriotza bezain zuri jarri zen, zerraldo eroriko zen itxura beldurgarriko izakiak heldu ez balio. Poliziari deitzera nindoan, baina berak, nire harri durarako, adeitasunez hitz egin zion tipoari.

— Hogeita hamar urte hauetan hilda zeundela uste izan dut, Henry, —esan zuen, ahots dardartiarekin.

— Hala da, — esan zuen gizonak— eta beldurgarria izan zen erabili zuen doinua entzutea. Oso aurpegi ilun eta beldurgarria zuen, eta ametsetan nigana itzultzen den distira begietan. Ilea eta bibotea ileurdinez josita zeuzkan, eta aurpegia zimurturik, sagar zimel bat bezala.

— Ibili pixka bat, maitea, —esan zuen Barclay andreak— gizon honekin hitz egin nahi dut pixka batean. Ez dago zertan beldurrik izan. —Ausardiaz hitz egiten saiatu zen, baina oraindik erabat zurbil zegoen, eta ia ezin zuen hitzik esan bere ezpainen dardaragatik.

— Eskatu zidana egin nuen, eta hizketan aritu ziren minutu batzuetan. Gero kalean behera joan zen begirada sutsuarekin, eta elbarri dohakabea ikusi nuen kale-argiaren ondoan zutik, ukabilak itxita airean astintzen, amorruz zoratuta balego bezala. Berak ez zuen txintik ere esan ate ondoan egon ginen arte, eskutik heldu eta gertatutakoa inori ez kontatzeko erregutu zidan.

— Nire aspaldiko ezagun bat da, berriro agertu dena,” esan zuen. Ezer esango ez nuela hitzeman nionean, musu eman zidan, eta harrezkero ez nuen berriro ikusi. Egia osoa esan dizut orain, eta poliziari ezkutatu badiot, une hartan nire adiskide maiteak zuen arriskuaz ez nintzelako konturatu izan da. Badakit haren onerako bakarrik izango dela dena jakitea.

— Hor dago bere aitortza, Watson, eta niretzat, pentsa dezakezun bezala, gau ilun bateko argia bezalakoa izan zen. Lehenago loturarik gabe zegoen guztia berehala hasi zen bere benetako lekua hartzen, eta gertaeren segida osoaren susmo lauso bat izan nuen. Nire hurrengo pausoa, noski, Barclay andrearengan hain inpresio nabarmena sortu zuen gizona aurkitzea izan zen. Aldershoten jarraituko balu, ez litzateke oso arazo zaila izango. Ez dago hainbeste zibil, eta deformatutako gizon batek, zalantzarik gabe, arreta erakarriko zuen.

— Egun bat eman nuen haren bila, eta arratsaldean —arratsalde hartan bertan—, Watson aurkitu nuen. Gizonaren izena Henry Wood da, eta emakumeek aurkitu zuten kaleko ostatu batean bizi da. Bost egun besterik ez daramatza bertan. Erregistro-agente baten itxura egin, eta oso elkarrizketa interesgarria izan nuen bere ugazabandrearekin. Gizona eskujokari eta antzezle gisa aritzen da, eta ilundu ondoren kantinetan zehar ibiltzen da. Horietako bakoitzean entretenimendu pixka bat eskaintzen. Kutxa horretan izaki bat darama, eta horrek asko kezkatu zuen ugazabandrea, inoiz ez baitzuen horrelako animaliarik ikusi. Haren kontakizunaren arabera, bere truko batzuetan erabiltzen du. Hori izan zen emakumeak kontatu ahal izan zidana, eta baita ere miraria zela gizona bizitzea, ikusita zein deformatuta zegoen, eta batzuetan hizkuntza arraro batean hitz egiten zuela. Azken bi gauetan bere logelan intzirika eta negarrez entzun zuen. Diruari dagokionez, ordaintzaile ona zen, baina bere diru-sartzean florin faltsua zirudiena eman zion. Hura erakutsi zidan, Watson, eta errupiar indiarra zen.

— Beraz, orain, ene adiskide maitea, ikusten duzu nola gauden eta zergatik behar zaitudan. Argi dago, emakumeak gizon harengandik banandu ondoren, berak urrutitik jarraitu ziela. Senar-emazteen arteko liskarra ikusi zuela leihotik, korrika sartu zela barrura eta kutxan zeraman izakia aske geratu zela. Hori guztia oso ziurra da. Baina bera da mundu honetan gela hartan zehazki zer gertatu zen esan diezagukeen pertsona bakarra.

— Eta berari galdetzeko asmoa duzu?

— Ziur asko—baina lekuko baten aurrean.

— Eta ni naiz lekukoa?


— Ontasun hori baduzu. Arazoa argitu ahal badu, primeran. Uko egiten badio, atxilotzeko agindua eskatu beste aukerarik ez dugu izango.

— Baina nola dakizu han egongo dela itzultzen garenean?

— Ziur egon zaitezke badaezpadako neurri batzuk hartu ditudala. Baker Streeteko nire mutiletako bat daukat zaindari, lokotxa bezala itsatsiko zitzaiona, edonora joanda ere. Bihar Hudson Streeten aurkituko dugu, Watson, eta bitartean ni neu izango nintzateke hiltzailea, luzaroago ohetik kanpo edukiko banu. Eguerdia zen tragediaren lekuan topo egin genuenean, eta, nire lagunaren gidaritzapean, Hudson Streetera abiatu ginen berehala. Bere emozioak ezkutatzeko gaitasuna izan arren, erraz ikusi ahal izan nuen Holmes asaldatuta zegoela, eta ni neu, berriz, erdi kirol plazer harekin; erdi intelektual horrekin, zeina beti sentitzen bainuen bere ikerketetan berarekin lotzen nintzenean.

— Hau da kalea —esan zuen, bi solairuko adreiluzko etxe lisoz inguratutako kale nagusi labur batean sartzen ari ginela. Ene, hemen dago Simpson partea emateko.

— Barruan dago, Holmes —oihukatu zuen kale-arabiar txiki batek, guregana korrika etorriz.— Ederki, Simpson! —esan zuen Holmesek, buruan zapladatxo bat emanez. Etorri, Watson. Hau da etxea. Bere txartela pasarazi zuen kontu garrantzitsu batengatik etorri ginela esanez, eta une bat geroago aurrez aurre geunden ikustera etorri ginen gizonarekin. Klima beroa izan arren, sutondoan makurtuta zegoen, eta gela txikiak labea zirudien. Gizona bere aulkian eserita zegoen, deformaturik eta uzkuriturik, deformazio itxura deskribaezina ematen zuen modu batean; baina gureganako biratu zuen aurpegia, nekatua eta beltzarana izan arren, noizbait bere edertasunagatik nabarmendu behar izan zen. Orain mesfidantzaz begiratu zigun bere begi suminkor horixeekin, eta, hitzik egin gabe eta altxatu gabe, bi aulki seinalatu zituen.



— Henry Wood jauna, azkenaldian Indian bizi izan dena, uste dut, —esan zuen Holmesek adeitsu— Barclay Koronelaren heriotzaren kontu txiki horregatik etorri naiz.

— Zer jakin beharko nuke nik horri buruz?

— Horixe da zehaztu nahi dudana. Uste dut badakiela, arazoa argitu ezean, Barclay andrea, zure aspaldiko laguna, hilketagatik epaituko dutela ziur aski.

Gizonak izualdi bortitza eman zuen.

— Ez dakit nor zaren, —oihukatu zuen,— ezta nola jakin duzun dakizuna, baina zin egingo al duzu egia dela esaten didazuna?

— Konortea noiz berreskuratuko zain baino ez daude hura atxilotzeko.

— Ene Jainkoa! Polizia zara zu?

— Ez.

— Zein da zure ardura, orduan?

— Gizon ororen ardura da justizia egitea.

— Nire hitza hartu dezakezu, errugabea dela.

— Beraz, zu errudun zara.

— Ez, ez naiz.

— Nork hil zuen James Barclay Koronela, orduan?

— Bidezko probidentzia izan zen hura hil zuena. Baina kontuz, garunak atera banizkio, nire bihotzean zegoenez, zegokiona baino ez nuen hartuko nire eskuetatik. Bere kontzientzia errudunak akabatu izan ez balu, litekeena da bere odola nire ariman edukitzea. Istorioa kontatzea nahi duzu. Tira, ez dakit zergatik ez nukeen egin behar, ez baitut zertan lotsatu.

— Horrela izan zen, jauna. Orain gamelu bat bezala ikusten didazue bizkarra eta saiheitsak okertuta, baina garai batean Henry Wood kaboa zen infanteriako 117.eko gizonik dotoreena. Indian geunden, kantonamenduetan, Bhurtee deituko dugun leku batean. Barclay, pasadan egunean hil zena, nire konpainia bereko sarjentua zen, eta erregimentuko edertasuna ere bai, eta inoiz bere ezpainen artean arnasa hartu zuen neskari ederrena, Nancy Devoy zen, banderadun sarjentuaren alaba. Bi gizonek maite zuten, eta bat maite zuen berak, irribarre egingo duzu sutondoan kuzkurtutako izaki gaixo honi begiratzen diozunean, eta nire itxura onagatik maite ninduela entzuten duzunean.

— Tira, nik bere bihotza banuen ere, bere aita Barclayrekin ezkonarazteko prest zegoen. Ni mutiko basatia eta zuhurtzigabea nintzen, eta berak heziketa jaso zuen, eta ordurako seguru zegoen ezpata-gerrikoa eramango zuela. Baina neskak leial jarraitu zidan, eta bazirudien lortu ahalko nukeela, Matxinada lehertu eta infernua askatu zenean herrialdean.

— Bhurtee-n hetsi gintuzten, erregimentuak artilleria bateria erdiarekin, sikh konpainia batekin eta zibil eta emakume askorekin. Hamar mila matxino inguru inguratzen gintuzten, eta terrier bikote bat arratoi kaiola baten inguruan bezain gogotsu zeuden. Bigarren aste inguruan ura amaitu zitzaigun eta Neill jeneralaren zutabearekin komunikatu ahal izango ote ginen pentsatu genuen. Gure aukera bakarra zen, ezin baikenuen espero emakume eta haur guztiekin borrokatzea; beraz, boluntario agertu nintzen irteteko eta Neill jeneralari arriskuaz ohartarazteko. Nire eskaintza onartu zen, eta Barclay Sarjentuarekin hitz egin nuen, zeinak beste edozein gizonen baino hobeto ezagutzen omen baitzuen lurra, eta nik matxinoak zeharkatzeko moduko bidea egin nuen. Egun hartako gaueko hamarretan, bidaiari ekin nion. Milaka bizitza zeuden salbatzeko, baina bat besterik ez nuen buruan gau hartan harresian behera jaitsi nintzenean.



— Nire bidea ur-laster lehor batetik zihoan, zentinela etsaiengandik babestuko ninduelakoan, baina izkina inguratzean haietako sei topatu nituen, ilunpetan makurtuta, nire zain. Une batean, kolpe batez zorabiatu eta eskuak eta hankak lotu zizkidaten. Baina benetako kolpea nire bihotzean izan zen, eta ez nire buruan. Izan ere, kontzientzia berreskuratu eta haren solasetik ulertu ahal izan nuen guztia entzun nuenean, nahikoa entzun nuen jakiteko nire kamaradak, hartu behar nuen bidea antolatu zuen gizonak berak, bertako zerbitzari baten bidez traizionatu eta etsaiaren eskuetan utzi ninduela.

— Tira, ez dago zertan hor sakontzerik. Orain badakizue zer egiteko gai zen James Barclay. Bhurtee hurrengo egunean Neill-ek askatu zuen, baina matxinoek nirekin eraman ninduten haien atzera-egitean, eta urte asko pasa ziren berriro aurpegi zuri bat ikusi nuen arte. Torturatu egin ninduten eta ihes egiten saiatu nintzen, baina harrapatu eta berriro torturatu ninduten. Ikus dezakezue zein egoeratan utzi ninduten. Nepalera ihes egin zuten batzuek beraiekin eraman, eta ondoren Darjeeling baino harantzago igo nintzen. Hango menditarrek nik nituen matxinoak hil zituzten, eta haien esklabo bihurtu nintzen ihes egin nuen arte. Baina hegoaldera joan beharrean iparraldera joan behar izan nuen afganiarren artean aurkitu nintzen arte. Han ibili nintzen urte askoan, eta azkenean Punjaub-era itzuli nintzen, non denbora gehiena bertakoen artean bizi izan nintzen, eta ikasi nituen trukoekin, bizimodua atera nuen. Zertarako balio zuen niretzat, elbarri dohakabe batentzat, Ingalaterrara itzuli edo nire lagun ohien artean ezagutzera eman? Nire mendeku nahiak berak ere ezin ninduen bultzatu hori egitera. Nahiago nuke Nancyk eta nire aspaldiko lagunak pentsatzea Henry Wood bizkarra zuzenarekin hil zela, bizirik eta makilaz. Txinpantze bat bezala arrastaka ibiltzen dela ikusi baino. Haiek ez zuten inoiz zalantzan jarri ni hilda nengoela, eta ni arduratu nintzen ez zezaten beste ezer jakin. Barclay Nancyrekin ezkondu zela entzun nuen, eta erregimentuan gora egiten ari zela bizkor, baina horrek ere ez zidan hitz eginarazi.

— Baina zahartzen zarenean, zure etxearekiko nostalgia sentituko duzu. Urteetan zehar egon naiz ametsetan Ingalaterrako zelai berde distiratsuekin eta hesiekin. Azkenean, erabaki nuen haiek ikustea hil baino lehen. Nahikoa aurreztu nuen gurutzatzeko, eta ondoren hona etorri nintzen soldaduen artean, ezagutzen ditudalako haien ohiturak eta badakidalako haiek nola dibertitu. Horrela, ni mantentzeko behar adina irabazi.

— Zure narrazioa oso interesgarria da, —esan zuen Sherlock Holmesek.— Jada entzun dut Barclay andrearekin izan duzun topaketaz eta zuen elkarrekiko antzemateaz. Orduan, ulertu dudanez, bere etxeraino jarraitu zenion, eta bere senarraren eta haren arteko liskar bat ikusi zenuen leihotik, non, zalantzarik gabe, senarrari aurpegiratu baitzion zureganako jokabidea. Zure sentimenduek menderatu zintuzten, eta zelaian zehar korrika egin eta moztu egin zenituen.

— Hala egin nuen, jauna, eta ikusi ninduenean inoiz ikusi ez nuen gizon bat bezala begiratu zidan, eta burua su-ontziaren kontra erori zitzaion. Baina bera hilda zegoen erori aurretik. Heriotza irakurri nuen bere aurpegian, suaren gaineko testu hori irakurri dezakedan bezain argi. Ni ikustea bala bat bezala izan zen, bere bihotz erruduna zeharkatu zuena.

— Eta orduan?

— Orduan Nancyk konortea galdu eta giltza hartu nion eskutik, atea ireki laguntza lortzeko asmoz. Baina hori egiten nuen bitartean, iruditu zitzaidan hobe zela horrela utzi eta alde egitea, zeren eta gauzak gaizki gera baitzitezkeen nirekin, eta, nolanahi ere, nire sekretua ezagutzera emango zen harrapatzen baninduten. Presaka, giltza poltsikoan sartu eta makila erortzen utzi nuen Teddy-ren atzetik nenbilela, zeinak gortina igo baitzuen korrika. Kutxan sartu nuenean, zeinatik irristatu baitzen, korrika atera nintzen ahal bezain azkar.

— Nor da Teddy? —galdetu zuen Holmesek.

Gizona makurtu eta izkinan zegoen untxitegi moduko baten aurrealdea altxatu zuen. Momentu batetik bestera, izaki marroi gorrixka eder bat agertu zen, argala eta bizkorra, erbinude zuriaren hankekin, sudur luze eta mehearekin. Animalia baten buruan inoiz ikusi ditudan begi gorri ederrenetako pare batekin.

— Mangosta bat da, —oihukatu nuen.

— Beno, batzuek horrela deitzen dituzte, eta beste batzuek ichneumon, —esan zuen gizonak.— Nik suge ehiztariak deitzen diet, eta Teddy izugarri azkarra da kobreakin. Badaukat hemen bat letaginik gabe, eta Teddyk gauero harrapatzen ditu kantineko jendeari atsegin emateko. Besterik, jauna?

— Tira, baliteke zuregana jo behar izatea berriro Barclay andreak bere burua egoera larrian ikusten badu.” — Hala balitz, noski, aurkeztuko nintzateke.

— Baina bestela, ez du zentzurik hildako gizon baten aurkako eskandalo hau sortzea, oso zitalki jokatu badu ere. Gutxienez poztasuna emango dizu jakiteak bere bizitzako hogeita hamar urtetan zehar bere kontzientziak saminko erantzuki egin ziola ekintza gaizto hori. Ai, hor doa Murphy Maiorra, kalearen beste aldean. Agur, Wood. Atzotik zerbait berririk gertatu den jakin nahi dut.

Garaiz iritsi ginen maiorra harrapatzeko kale-kantoiara iritsi baino lehen.

— Ene, Holmes, —esan zuen— Entzungo zenuen iskanbila honek ez duela ezertarako balio izan, ezta? — Zer gertatzen da ba?

— Ikerketa amaitu berri da. Ebidentzia medikoak argi eta garbi erakutsi du heriotza apoplexia baten ondorio izan zela. Ikusten duzunez, azken finean nahiko kasu erraza zen.

— O, guztiz azalekoa, —esan zuen Holmesek, irribarretsu.— Goazen, Watson, ez dut uste gehiago behar gaituztenik Aldershoten.

— Badago gauza bat, —esan nuen geltokirantz gindoazela.— Senarraren izena James bazen eta bestearena Henry bazen, zertara zetorren David delako bati buruz hitz egitea?

— Hitz bakar horrek, ene Watson maitea, istorio osoa kontatu beharko zidan, zuk deskribatzea hain gogoko duzun arrazoitzaile eredugarria izan banintz. Gaitzespen gisa erabilitako termino bat zen, noski. —Gaitzespen gisa?

— Bai; David noizean behin desbideratzen zen pixka bat, badakizu, eta behin, James Barclay sarjentuaren noranzko berean egin zuen. Gogoratzen duzu Uriah eta Bathsheba-ren arteko kontutxo hori? Uste dut nire ezagutza biblikoak herdoildu samarrak direla, baina Samuelen lehen edo bigarren liburuan aurkituko duzu istorioa.

